



© Illustration : Jean Le Corre

2026ko
irailaren
19a eta
20a

Ondarearen *Europako Jardunaldiak*

*Donibane Lohizune
& Ziburu*

VILLES
& PAYS
D'ART &
D'HISTOIRE


Les Récollets
Errekoletsoak

Aurkibidea

Errekoletan

3 - 6

Itsasoko ondarea

7 - 12

Hirian

13 - 19

Guneen mapa

20 - 21

Informazioak eta erreserbak

Les Récollets - Errekoletan AOIZ

05 54 81 07 40 / ciap.recollets@baiestjeandeluzciboure.fr

Donibane Lohizuneko turismo bulegoa

05 59 26 03 16 / saintjeandeluz@otpaysbasque.com

Ziburuko turismo bulegoa

05 59 47 64 56 / ciboure@otpaysbasque.com

Linean

www.ciap-recollets.fr

Segi gaitzazu



Errekoletan

Arkitekturaren eta Ondarearen
Interpretazio Zentroa



Bisita libreak

François Turnaco kaia, 2
Ziburu




Lehenik, erakusketa iraunkorrean, filmek, joko interaktiboek, maketek eta soinu bandek Donibane Lohizune eta Ziburuko 400 urte baino gehiagoko historia eta itsas abentura ezagutzeko ahala ematen dute.

Gero, *Jada 10 urte!* erakusketak ondarearen aldeko hamar urteko ekintzak kontatzen ditu.

Azkenik, parte har ezazu Blaise Guiraoren *Atuna* obra parte-hartzailean, hitz batzuk idatziz, eta, hala, biziaraz ezazu itsas memoria.

Larunbatean eta igandean: 10:00etatik 18:00etara



Hitzaldia – Zokoako gotorlekua: gotorleku baten sekretuak



Donibane Lohizune eta Ziburuko badia lehen itsas sarraldiei irekia zen. Baina, Zokoako gotorlekuak babestu zuen, Ozeano Atlantikoaren aldeko gune estrategiko gisa. Euskal Herriko artisauek eta biztanleek eraiki zuten, eta gaur egun monumentu historiko gisa sailkatua da.

Éveha ikerketa-bulegoaren azken ikerketek haren funtzionamenduaren ezagutza berri dute. Gotorlekuaren sekretuak salatuz, ahala ematen dute ateak bertutalki berri irekitzeko eta badiako biztanleei haien ondarea ezagutarazteko.

Irailaren 17a, osteguna: 18:30

Sartzea uririk – Erreserbarik gabe



Portuko emazteak



1960ko hamarkada arte, emazteak itsasketatik eta arrantzatik baztertu ziren.

Portuko emazteak erakusketak ur ezezagun horietan nabigatzera gonbidatzen zaitu, XVII. mendetik gaur egun arteko bost mendetako historia erakusteko eta itsas ekonomian emazteek izan duten eragina argitan ezartzeko.



GEHIAGO JAKITEKO GOGOA?

Bi egun hauetan zehar, Arte eta historia herrialdeko gidari-hizlariak hitzorduak ematen dizkizute erakusketen bisita lasterrak egiteko.

Larunbatean eta igandean: 10:00etatik 18:00etara

Sartzea uririk – Erreserbarik gabe



Horma Lagunak – Euskal Herriko frontoiak



Argazkiaren bigarren mendeburua ospatuko da! AOI Zek proposatzen dizu *Horma Lagunak* erakusketa ikustea, pilotaren eta frontoien historian egindako murgilketa sentikorra, Jean-Jacques Ader-en argazkiei esker.



Ifrentzu gabeko aurkirik ez da #Itsasbazterra



Des Vents & Marées konpainiak zuzeneko irati-plato bat proposatuko du, itsasbazterrak eta itsaspeko sakonerak bizi, behatu, ikertu eta kontatzen dituztenek hitza har dezaten.

Topagune alaia, parte-hartzailea eta kontenplatiboa izanen da, lekukotasun intimoak eta kontakizun zientifikoak elkar gurutzatzeko eta aberasteko, eta diziplinen, komunitateen eta lurraldearen arteko harremanak indartzeko.

-

Larunbatean: 15:00etan

Sartzea urririk – Erreserbarik gabe



Jean-Jacques Ader-en begirada: Euskal Herriko frontoiak



Horma Lagunak - Euskal Herriko frontoiak erakusketaren kariatara, Jean-Jacques Ader argazkilariak bere lana eta egin-moldeak esplikatuko ditu.

Bere argazkien eta lekukotasunaren bidez, euskal ondare biziaren ikurrak diren pilotalekuen historia, arkitektura eta nortasuna ezagutuko dituzu

-

Igandean: 14:00etatik 17:00etara



Itsasoko *Ondarea*



Ziburuko itsasargia



Nabigazioa laguntzeko 1870ean eraiki zen eta André Pavlovsky arkitektoak 1937an aldatu zuen eraikinaren historia ezagutuko duzu.

Ibaian gorako itsasargiaren bisita berezia, portura so dagoen terrazaraino.


Bisita gidatuak, leiarra ikusteko paradarekin, itsasargien eta baliza-seinaleen teknikari batek lagundurik

Larunbatean: 09:30 - 10:30 - 11:30

Urririk - Erreserbatu behar da, AOIZen edo Turismo Bulegoetan

Bisita libreak (leiarra ikusi gabe)

Larunbatean: 14:00etatik 17:00etara
Urririk



Zokoako itsasargiaren ohiz kanpoko irekitzea



Itsasargiaren ingurabidea eta leiarerako ezohiko sarri gozatuko duzu, eta Donibane Lohizuneko badiako itsas baliza agutuko duzu eta ondarearen skuan jartzen duten kosta-leirigibelatze mailan jokoan dena bertuko.

Bisita gidatuak, itsasargien eta baliza-seinaleen teknikari batek lagundurik.

Larunbatean: 14:30 - 15:30 - 16:30

Urririk - Erreserbatu behar da, AOIZen edo Turismo Bulegoetan


Zokoako semaforoa



Aurten ere, semaforoko atea zabalduko dira. Salbuespenez, dorrearen gainaldera igotzen ahalko zara, 24 m-ko goratasunera, 360°-ko bista zoragarriaz gozatzeko!

Larunbatean eta igandean: 10:00etatik 12:00etara / 14:00etatik 17:00etara (bisitak 30 minutu guziez)

Urririk - Erreserbatu behar da, AOIZen edo Turismo Bulegoetan



Euskadiko itsas ondarea



Egurrezkoa elkartea - Bourousse karrika, 21 - Ziburu

Garai bateko Marin ontziolaren bisita librea egingen duzu, elkarteko kideek egin egurraren lurruntze eta profilaketa erakustaldiarekin.

Itsas Begia elkartearen funts historikotik ateratako argazki zaharren erakusketa ere izanen duzu ikusgai.

Larunbatean: 09:00etatik 12:30era - 14:00etatik 16:30era

Erakustaldiak: 09:00 - 10:30 - 15:00 - 16:30

Urririk - Erreserbarik gabe



Zokoako mareografoa



Mareografoko diga - Zokoa - Ziburu

Lehen mareografoa 1875ean jarri zuten Zokoako portuko iparraldeko dikean. Haren historia ezagutuko duzu, eta baita 1951tik 2000ra martxan egon zen "Brillié" motako mareografoarena ere.

Gainera, Urpeko Ondarea itsaspeko arkeologia elkarteak bere jarduerak eta bere aurkikuntzen argazki sorta ere aurkeztuko ditu.

Larunbatean: 10:00etatik 12:00etara - 14:00etatik 17:00etara

Urririk - Erreserbarik gabe

Objektuek itsasoaren berri ematen dutelarik



Itsas Begia elkartea - Harri mokorren bidea - Zokoa - Ziburu

Itsas Begia elkarteko laguntzaileek beren sotoko atea irekiko dituzte, itsasoarekin zerikusia duten 1.500 objektu baino gehiagoko bilduma paregabea ezagutzeko.

Larunbatean eta igandean: 14:00etatik 17:00etara
Urririk - Erreserbarik gabe

Donibane Lohizuneko portua



Alba txalupa

Trois-Mâts Basque elkarte

XX. mendearen hasieran Euskal Herrian zeuden lurrunezko sardina-txalupen erreproduzio bat da *Alba*.

Txaluparen bisitak

Larunbatean eta igandean: 10:00etatik 12:00etara

Ibilaldiak badian

Larunbatean eta igandean: 14:00etatik 18:00etara

Zurezko ontziak

Egurrezkoa elkarte

Elkarteko kideek berritu tradiziozko ontzietan ibiliko zara.

Igandean: 14:00etatik 18:00etara

Urririk – Izena eman behar da elkarten karpan



Brokoa txalupa

Itsas Begia elkarte

Brokoaren bornuan itsasoratuko zara; hots, garaian bezala eraiki XIX. mendeko txalupa baten kopian.

Larunbatean: 14:00etatik 18:00etara
Igandean: 10:00etatik 12:00etara / 14:00etatik 18:00etara

Donibane Lohizuneko portua



Pierre Loti II, SNSMaren txalupa

SNSM Frantziako Itsasoko Sokorri Sozietatea nola dabilen jakiteko eta itsasoko lanjerei buruz sentsibilizatuko zaituzten laguntzaileak ezagutzeko parada ukanen duzu.

Ondotik, 1999an eraiki haien salbamendu txalupa bisitatzen ahalko duzu.

Larunbatean: 10:00etatik 12:00etara / 14:00etatik 18:00etara



Trainerilla, lehengo arrantza ontzia

Ur Joko elkarte

Zatoz egun kirolerako baliatzen den arrantza ontzi ohia ezagutzera.

Larunbatean: 14:00etatik 18:00etara
Igandean: 10:00etatik 18:00etara
Urririk – Erreserbarik gabe

Traineruan ibiltzen ikasten hasteko ateraldia

Rodolphe Caillaux karrika, 5 Donibane Lohizune

Eta traineruan ibiltzen hasten bazina?

Ur Joko klubak atek irekiko dizkizu jende guzientzat den inisiazio atsegin baterako!

Igandean: 9:00etatik 11:00etara

Urririk – Erreserbarik gabe

Donibane Lohizuneko portua



Brokoa: Bizkaiko txalupen ondarea

Itsas Begia elkarteak

Itsas Begia elkarteak gonbidatzen zaitu XIX. mendeko Bizkaiko txalupen, haien eraikuntzari eta erabilerei buruzko erakusketa bat ikustera.

Erakusketaren pieza nagusia Brokoa txalupa da, 1880ko plano baten arabera egina, itsas zurginen trebeziaren eta itsasontzi horiek euskal itsas ondarean duten garrantziaren erakusgarri.

-

Larunbatean eta igandean: 10:00etatik 12:00etara - 14:00etatik 18:00etara

Zurezko ontziak: ezagutu beharreko ondarea

Egurrezkoa elkarteak

Egurrezkoa elkarteak lanean ari da Ziburuko eta Donibane Lohizuneko zurezko ontzi zaharrak zaindu eta zaharbertitzeko, haiei bigarren bizi bat emateko, haiek berriz ureratzeko eta etorkizuneko belaunaldiak itsas ondarea transmititzeko.

Ezagut itzazu elkarteak kideak, eta haiekin mintza zaitez itsas ondareko zaletasunari buruz. Bestalde, argazki erakusketa bat ere izanen da, eta baita tailer ludiko bat ere, haurrak istinkatzen ikasten has daitezten.

-

Igandean: 10:00etatik 12:00etara - 14:00etatik 18:00etara

Sartzea uririk



Hirian



Itsasoari begira

*La Rotonde, Maurice Ravel plaza
Donibane Lohizune*

Guillaume Fauveau argazkilariak, nahita bestelakotutako argazki analogiko batzuen bidez, higaduraren eta klima-aldaketaren ondorioz euskal kostaldeak bizi dituen itxuraldaketen berri ematen du. Informatzeko gisako behakoa eta argazkigintzari buruzko esperimentazioak uztartuz, lurralde honi eragiten dioten eraldaketen isla sentikorra bihurtzen du irudia, eta, hala, etengabe aldatzen ari den paisaiari beste behako bat eskaintzera akuilatzen du ikuslea.

Larunbatean: 10:30etik 12:30era –
14:30etik 19:00etara
Igandean: 14:30etik 19:00etara

Sartzea urririk



Donibane Lohizuneri eskainitako behakoak

*Dukontenea etxea
André Ithurralde etorbidea, 12
Donibane Lohizune*

Giltzarri elkarteak, lehengo argazkien bilduma berezi baten bidez, XX. mendeko hiriko hotel eta ostatuak berri ikustea proposatzen du, eta, aparatu estereoskopikoen manipulazioari esker, baita 1920an hiriko karriketan murgiltzea ere.

Larunbatean eta igandean: 10:00etatik
12:30era – 14:30etik 19:00etara

Erakusketaren bisita iruzkindua
Larunbatean eta igandean: 16:00etan



2026ko ARTha



*Jacques Thibaud ibiltokia
Donibane Lohizune*

Artharen 24. edizioa hartuko du Jacques Thibaud ibiltokiak, Donibanen antolatzen den iraileko ezinbesteko hitzordua.

Badu 24 urte erakusketaren salmenta horrek artista profesional eta amaturrak biltzen dituela, itsasoari begira, badien, ingurune zoragarrian. Zatoz margolaritza, zizelkaritza, argazkigintza eta marrazketako sorkuntza garaikidearen joritasuna ikustera. Gainera, 18 eta 25 urte arteko gazte sortzaileei eskainitako gunea izanen da, artista gazte talentutsuak ere nabarmentzeko.

Artistek izena eman ezazue 2026ko irailaren 11 baino lehen!

Kontaktua: direction.culture@
saintjeandeluz.fr.

Larunbatean eta igandean: 10:00etatik
18:00etara



Euskal Herriaren bisita, estanparen erara

*BLEU, la galerie, Infantearen karrika, 3
Donibane Lohizune*

Estanparen maisu japoniar handien estiloa erabiliz, Euskal Herrian barna ibiltzea proposatzen du Éric Bourdonek, bertako harribitxiak behako berri batekin ezagutzeko.

Larunbatean eta igandean: 10:00etatik
13:00etara / 14:00etatik 19:00etara

Sartzea urririk



Lohobiagenea, Luis XIV.aren etxea ere deitua

Luis XIV.aren plaza – Donibane Lohizune

Luis XIV.a etxe honetan bizi izan zen, 40 egunez, bigarren estaian, estaia noblean, bere ezkontzaren karietara, 1660an. Bisitak eta hitzaldia proposatuko dituzte etxearen egungo jabeek.

- Bisita LIBREAK
4 €, han berean pagatzekoak – Urririk 18 urtetik beharagoentzat eta ikasleentzat
Larunbatean: 14:30etik 18:00etara
Igandean: 10:30etik 12:30era – 14:30etik 18:00etara

- HITZALDIA
“1660ko ekainaren 9a – Grande et petites Histoires d'un mariage royal extraordinaire”
6 €, han berean pagatzekoak – Baitezpadakoa aitzinetik erreserba egitea – Tel. zk.: 06 79 12 23 75
Larunbatean: 10:30ean

- Bisita GIDATUA
Larunbatean: 09:15ean – Igandean: 09:30ean
Urririk – Erreserbatu behar da, AOIZen edo Turismo Bulegoetan



Zokoako gotorlekua: badiaren begiralea

Sar zaitez Zokoako gotorlekuaren barnean Arte eta historia herrialdeko gidari-hizlariekin, eta, hala, ezagut ezazu badiako leku enblematiko honen historia. François Ferry ingeniariak Vaubanen bultzadaz eraikitako gotorleku honek ez du sekretu gehiagorik ukanen zuretzat!

Larunbatean eta igandean: 10:00 – 11:30
Urririk – Erreserbatu behar da, AOIZen edo Turismo Bulegoetan



Harri mokorren etxea eta EGIATEGIA

Harri mokorren bidea, 5 bis, Zokoa – Ziburu

Lehenik, leku hau bisitatuko duzu, hemen sortu baitziren Badiako babes-dikeak osatu zituzten lehen harri mokorrak. Gero, EGIATEGIAren arno baso bat dastatuz bururatuko duzu bisita. Izan ere, arno hori dakarten kupelak Arthako digaren babespean ontzen dira.

Larunbatean: 11:00etan eta 14:00etan 5 €, han berean pagatzekoak / Urririk 16 urtetik beharagoentzat – Baitezpadakoa da aitzinetik izena ematea

Herriko Etxeko saloiak

Luis XIV.aren plaza – Donibane Lohizune

Zatuz 1656an eraikitako Herriko Etxeko antzinako altzariak eta herriko bildumaren zati bat ikustera, saloien eta auzapezaren bulegoaren ezohiko ate irekitzeen karietara.

Igandean: 10:30etik 12:00etara
Sartzea urririk




Tribunako organoa

Organo donibandar handia ikusi eta entzuteko parada izanen duzu, eta baita tresna barneko mekanismoen konplexutasuna ikusteko aukera ere.

Instrumentuaren jabeak musika-makina miragarri honen mendeetako historia laburbilduko dizu, eta bere funtzionamenduaren sotiltasunak azalduko dizkizu.

Igandean: 15:00 – 16:00 – 17:00
Urririk – Erreserbatu behar da, AOIZen edo Turismo Bulegoetan
Leku kopuru mugatua



Itsasertzeko landare- baratze botanikoa

Gaëtan de Bernoville karrika, 31
Donibane Lohizune

Landare-baratze botanikoak euskal kostaldeko ingurune naturalen bihotzean paseatzera gonbidatzen ditu bisitariak.

Gainera, ibiltokietan zehar, landare baliosen lorategia, familia botanikoen labirintoa eta bost kontinenteetako jatorrizko landare-bilduma ohargarri bat ere ezagutuko dituzu.

Pedagogikoa den eta aire-kanbioa dakarren ibilaldi horrek euskal kostaldeko eta Hego Landetako paisaia enblematikoak ikusteko parada ematen du, eta, aldi berean, bisitariak sentsibilizatzen ditu salbuespeneko ingurune natural horiek zaintzeari.

Larunbatean eta igandean: 10:00etatik 18:00etara
Sartzea uririk



Ozeanoaren gaineko balkoi bat, aberastasunak eta hauskortasunak hobeki ikusteko

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoko gidari-hizlariak iruzkindutako bisitaldi honek kostaldearen alderdi anitzak erakutsiko ditu. Artxiloko gurutzetik Santa Barbarako lurmuturreraino, euskal kostaldeko ondare natural, historiko eta arkitektonikoa ezagutuko duzu, hala nola formazio geologikoak, alemaniar defentsa-sistemaren hondakinak, etxe enblematikoak eta dikeen historia.

Larunbatean: 10:00etan
Urririk – Erreserbatu behar da, AOIZen edo Turismo Bulegoetan



Bordagaineko dorrea

Dorreko karrika, 1 – Ziburuko

Arte eta historia herrialdeak gonbidatuko zaitu euskal kostaldeaz 360°-ko ikuspegi batez gozatzen (aroaren arabera).

Bordagaineko dorreko terrazatik miretsiko dituzu Donibane Lohizune eta Ziburuko badia, ozeanoa eta inguruko mendiak.

Parada ezin hobea gunen enblematiko honi beste behako bat eskaintzeko, ondare, historia eta paisaien artean.

Larunbatean: 14:30etik 16:30era
Bisita libreak

Kasu: bisita egiteko trenpu aski onean izan behar da, eta bisita hau ez da gomendagarria bertigoia dutenentzat. 13 urtetik gorako adingabeak heldu batez lagunduak izan behar dira.



Jondoni Joanes Batista elizaren ezila dorrea

Gure gidari-hizlariak eta René Colonel ohorezko Frantziako Eraikinen Arkitektoarekin batera, igan itzazu elizako ezila dorreko eskailera, ezagutuz ezazu ezilen gela, eta goza ezazu, balkoitik, 360°-ko ikuspegi zoragarriaz (aroaren arabera).

Igandean: 14:00 – 15:00 – 16:00 – 17:00
Urririk – Erreserbatu behar da, AOIZen edo Turismo Bulegoetan



Ziburu

- B Turismo Bulegoa
- 12 Errekoletokak AOIZ**
- 13 Ontziola – Egurrezkoa elkartea
- 14 Ziburuko itsasargia
- 15 Bordagaineko dorrea
- 16 Itsas Begia elkartearen sotoa
- 17 Harri mokorren etxea – EGIATEGIA
- 18 Mareografoa
- 19 Semaforoa
- 20 Zokoako itsasargia
- 21 Zokoako gotorlekua

Donibane Lohizune

- A Turismo Bulegoa
- 1 Portua – Erakusketak eta ontzien bisitak
- 2 Portua – Arradazko ibilaldia (Egurrezkoa elkartea)
- 3 BLEU, la galerie
- 4 Herriko Etxea
- 5 Luis XIV.aren etxea
- 6 La Rotonde
- 7 Ur Joko kluba
- 8 Jondoni Joanes Batista eliza
- 9 ARTha erakusketa
- 10 Dukontenea etxea
- 11 Landare-baratzte botanikoa